



ANTIGUA-LUBERRI 2020-21 KONTINGENTZIA PLANA



AURKIBIDEA

0. SARRERA.....	2
1. HELBURUAK	3
2. OSASUN NEURRIAK	3
2.1. IKASTETXERA SARRERA ETA IRTEERA	
2.2. HIGIENE NEURRIAK ETA ESKUAK GARBITZEA	
2.3. PERTSONEN ARTEKO DISTANTZIA	
2.4. ESPAZIOEN AFOROA ETA ERABILERA	
2.5. COVID-19 KASUAK SORTUZ GERO JARDUTEKO PLANA	
3. IRAKAS- IKASKUNTZA PROGRAMAK ETA CURRICULUMA. AGERTOKIAK.	10
3.1. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEI ARRETA	
3.2. EUSKARA INDARTZEA	
4. IRAKASLEEN ARTEKO KOODINAZIOA ETA PRESTAKUNTZA	11
5. LAGUNTZA- ETA JARRAIPEN-BATZORDEA	11

0. SARRERA

2020ko martxoan aldaketa izugarria eragingo zuen pandemia etorri zitzaigun eta honek aldaketak ekarri zituen bai gure gizartean bai gure hezkuntza sisteman.

Tamalez, Covid 19-ak udan izan duen bilakaera ikusita neurri operatibo batzuk aurreikusi ditugu, ahal den neurrian arriskuak minimizatzeko. Birusak gure artean jarraituko du eta horregatik ikasleak, irakasleak eta ikastetxeko langile guztiek infekzioa hartzeko eta transmititzeko arriskuan egon gaitezke. Beraz, eskola komunitateko kide garen heinean guztien arteko elkarlana eskatzen dugu transmisioa ahalik eta gehien ekidin dadin.

Kontingentzia Plan hau eratzeko hainbat dokumentu hartu ditugu kontuan:

- Hezkuntza Sailaren Koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorra
- 2020-21 Kurtso Hasierako Ebazpena
- Lasarteko Berritzeguneko ikastetxeentzat laguntza dokumentua
- Hainbat ikastetxeen kontingentzia planak
- Hezkuntza Saileko Lan arriskuen prebentziorako neurriak
- Hezkuntza Sailaren Koronabirusaren aurrean jarduketa Protokolo Osagarria

Plan honen barruan, hiru agertoki ezberdin aurre-ikusten ditugu:

1. **Lehenengo agertokia:** “Normaltasun” egoeratik hurbilen dagoen eszenatokia.
2. **Bigarren agertokia:** Aurreko bien tartekoa izango litzateke, hau da, eszenatoki mistoa, alde batetik aurrez-aurreko irakaskuntza ezartzen duena, baina, irakaskuntza telematikoarekin tartekatua aldi berean.
3. **Hirugarren agertokia:** egunerokotasun horretatik urrunen dagoena izango litzateke, hau da, irakaskuntza ez presentzialak ekarriko lukeena, edota beste modu batetara esanda, irakaskuntza telematikoa.

1. HELBURUAK

- Edozein agertokitan gaudela ere (1, 2. edota 3.a) segurtasun-berme handienarekin jokatzea, bai ikasleen, irakasleen eta irakasle ez diren langileen segurtasuna ahalik eta hobekien kudeatzeko.
- Heziberrik markatzen dituen helburu guztiak lortzea, egoera batean egon ala bestean.
- Gure hezkuntza komunitatearen partaide guztien ongizatea eta segurtasuna bermatzea ikasturte osoan eta egunez-egun.


2. OSASUN NEURRIAK

2.1. IKASTETXERA SARRERA

Eraikinak dituen sarrera guztiak erabiliko dira: Sarrera nagusia, Jangela aldeko sarrera eta Gimnasio aldeko sarrera.

A. SARRERAK eta IRTEERAK

Antigua-Luberriko sarrerak ondoko irudian agertzen dira: Sarrera nagusia (1), Gimnasio aldeko sarrera (2) eta Jangela aldeko sarrera (3)



SARRERAK:

ORDUA	MAILA	NONDIK SARTUKO DIRA?	ORDUA	MAILA	NONDIK SARTUKO DIRA?
07:55	DBH2	3 - JANGELA ALDEKO SARRERATIK	08:05	DBH1	3 - JANGELA ALDEKO SARRERATIK
	DBH4 ZIG	1 - SARRERA NAGUSITIK		DBH3	1 - SARRERA NAGUSITIK
	BATX2	2 - GIMNASIO ALDEKO SARRERATIK		BATX1	2 - GIMNASIO ALDEKO SARRERATIK

IRTEERAK:

- Astelehen, Astearte eta Ostegunetan

ORDUA	MAILA	NONDIK ATERAKO DIRA?	MAILA	NONDIK ATERAKO DIRA?
14:10	DBH1	3 - JANGELA ALDEKO SARRERATIK	DBH2	1 - SARRERA NAGUSITIK
14:15	DBH3 ZIG	1 - SARRERA NAGUSITIK	DBH4	3 - JANGELA ALDEKO SARRERATIK
15:10	BATX1	1 - SARRERA NAGUSITIK (Zuzendaritzaren alboko eskaileretatik jaitsiz)	BATX2	3 - JANGELA ALDEKO SARRERATIK

- Asteazkenetan

ORDUA	MAILA	NONDIK ATERAKO DIRA?	MAILA	NONDIK ATERAKO DIRA?
13:40	DBH4 ZIG	1 - SARRERA NAGUSITIK		
14:30	DBH3	2 - GIMNASIO ALDEKO SARRERATIK	BATX1	1 - SARRERA NAGUSITIK (Zuzendaritzaren alboko eskaileretatik)
			BATX2	3 - JANGELA ALDEKO SARRERATIK
14:35	DBH1	3 - JANGELA ALDEKO SARRERATIK	DBH2	1 - SARRERA NAGUSITIK

- Ostiraletan


ORDUA	MAILA	NONDIK ATERAKO DIRA?	MAILA	NONDIK ATERAKO DIRA?
14:05	DBH1	3 - JANGELA ALDEKO SARRERATIK	DBH2	1 - SARRERA NAGUSITIK
14:10	DBH3 ZIG	1 - SARRERA NAGUSITIK	DBH4	3 - JANGELA ALDEKO SARRERATIK
14:15	BATX1	1 - SARRERA NAGUSITIK (Zuzendaritzaren alboko eskaileretatik)	BATX2	3 - JANGELA ALDEKO SARRERATIK

B. ATSEDENALDIAN SARRERA - IRTEERAK

Beti modu berean egingo dira. Gogoan eduki ikasturte honetako jardunaldia jarraia izango dela eta maila guztietan goizero bi jolasaldi izango ditugula. DBH 1 eta 2 alde batetik eta DBH 3 eta 4, ZIG taldea eta BATX 1 eta 2 bestetik.

Batxilerreko ikasleak ahal den neurrian, ikastetxetik kanpora irten beharko dute jolas ordutan. Eguraldi txarra egiten duenean, bakoitza bere gelan geratu daiteke.

DBH-ko taldeak berriz patioetan egon beharko dute beti bezala. Mailen arteko kontaktua saihesteko patioak bi zatitan banatuko dira zinta batekin: **A patioa** eta **B patioa**.



DBH 1 eta 2

MAILA	PATIOA	NONDIK SARTU/ATERAKO DIRA?
DBH1	A Patioa	2 - GIMNASIO ALDEKO SARRERATIK
DBH2	B Patioa	3 - JANGELA ALDEKO SARRERATIK

DBH 3 eta 4 . ZIG taldea

MAILA	PATIOA	NONDIK SARTU/ATERAKO DIRA?
DBH3	A Patioa	2 - GIMNASIO ALDEKO SARRERATIK
DBH4 ZIG	B Patioa	3 - JANGELA ALDEKO SARRERATIK

2.2. HIGIENE NEURRIAK ETA ESKUAK GARBITZEA

- **Temperatura neurtu:**

Ikastetxera sartzean, temperatura neurtuko zaie (zaintzako irakasleak eta atezainak).

37 gradutik gorako sukarra edukiz gero, ikaslea isolamendu gelara bideratuko da eta familiari jakinaraziko zaio bere bila pasa dadin.

- **Eskuen garbiketa:**

Eskuen garbiketa ziurtatu behar da sartzean eta ateratzean, gela batetik bestera joaterakoan, komuna erabili baino lehen eta ondoren, zerbait jan baino lehen ...

Eskuetako higieena gel hidroalkoholikoa erabiliz egingo da.

- **Maskara:**

Ikastetxera sartzeko eta bertan une oro egoteko, MASKARA DERRIGORREZKOA izango da, Pertsonen arteko distantzia 1,5 metrotik gorakoa izan ala ez.

- **Espazio edota gela konpartituak:**

Eskola barruko espazio konpartituak (informatika gela, laborategia, liburutegia, musika gela...) protokolo zehatzagoak izango dituzte.

- **Ikasgelen desinfektatzea:**

Talde batek baino gehiagok gela bat erabiltzen duenean, ikasleak gelaz aldatzen direnean, gela garbitu eta desinfektatu beharko da. Ikasle bakoitzak erabili duen espazioa (mahaia eta aulkia) garbitu beharko du bertan egongo den desinfektatzaile eta eskuoihalarekin.

- **Aireztatzea:**

Gela guztietan sarritan egin beharko dira aireztatze-lanak, gutxienez 5 minutuz, klasea hasi baino lehenago, amaitzean eta ahal den guztietan.

BERAZ, EZINBESTEKOA DA:

1. MASKARAK ERABILTZEA, eta arnas higiena zaintzea.
2. Ahal den neurrian 1,5 METROTAKO segurtasun distantzia mantentzea.
3. KONTAKTUAK mugatzea.
4. ESPAZIOAK SARRITAN AIREZTATZEA
5. GARBIKETA ETA DESINFEKZIO SAKONA EGITEA.
6. KUDEAKETA EGOKIA ETA AZKARRA, KASUREN BATEN SUSMOA DAGOENEAN: isolamendu gelaren erabilpena; familien, zuzendaritzaren eta osasun arloko Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) arteko harreman estua.

2.3. PERTSONEN ARTEKO DISTANTZIA

Orokorrean, bai ikastetxera sartzean eta irtetean, eta ikasleen artean gertatzen diren elkarrekintza guztietan **1, 5 metroko distantzia** mantenduko da.

Distantzia hori bermatu ezin denean, pertsonen arteko distantzia maskararen erabilerarekin eta gainerako prebentzio-neurriekin osatuko da.

2.4. ESPAZIOEN AFOROA ETA ERABILERA

- Zentroko espazio amankomunetan: liburutegian, ikasgeletan, komunetan eta erabilera partekatzen den beste eremu batzuetan, ahal izanez gero pertsonen arteko distantzia 1,5 metrokoa izango da.
- Bizikletarekin etortzen diren ikasleak bere mailari egokitutako espazioan utziko dituzte: DBH1 eta DBH2 jangela ondoko ateetan dauden tokietan, DBH3 eta DBH4 sarrera nagusitik eskuinetara dauden tokietan eta Batxilergoko 1.eta 2. mailakoak gimnasio ondoko atetik ezkerretara dauden tokietan.
- Komunak duten aforoaren arabera erabiliko dira eta aforo hau kartel batzuen bitartez zehaztuko da (gehienez 2 pertsona). Komunak erabili aurretik eta ondoren eskuak garbitu beharko dira. Kanpoan zain dauden pertsonen arteko distantzia mantenduko da.
- Igogailua banaka erabiliko da. Lehentasuna emango zaie ezgaitasuna eta mugikortasun murriztua duten pertsonari.
- Ikastetxeko espazio itxien aireztapena hobetuko da, barruko airea berritzen laguntzeko.
- Ikasle bakoitzak ikasgai amankomunetan mahaia eta aulki bera edukiko ditu kurtso osoan zehar eta aukerako ikasgaietan ere. Mahai eta aulki horren gainean erabiltzailearen izena agertuko da. Erabiltzaile aldaketa dagoen aldiro mahaia eta aulkia garbitu beharko dira.
- Ikasleak erabilitako muxu-zapiak dagozkien zabor-ontzietan bota arte gordeko ditu.

2.5. COVID-19 KASUAK SORTUZ GERO JARDUTEKO PLANA

- **COVID-19**arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasle, irakasle edo langileak ez dira eskolara bertaratuko. COVID-19a diagnostikatu zaielako isolatuta dauden guztiak, edota sintomak agertzen dituen edo diagnostikoa jaso duen lagunen batekin harreman estuan egon delako edota etxean berrogeialdian dagoen edonor ere ez da bertaratuko.
- Etxeko norbaitek COVID-19aren diagnostikoa jaso badu, gurasoek edo tutoreek horren berri emango diote zuzendaritzari.
- Irakasleak ikasle bat COVID-19arekin bateragarria den sintomatologia duela ikusten badu, ikasle horrekin jaitsiko da **ISOLAMENDU- GEL**Ara zaintzako irakasleari abisua emanaz. Irakasle horrek abisua pasako dio arduradunari edo zuzendariari. Zuzendariak (edo arduradunak) Prebentzio Zerbitzuko Arlo Medikoari jakinaraziko dio. Aldi berean, arduraduna familiarekin harremanetan jarriko da ikaslea etxera eramateko. Familia bere osasun zentroarekin harremanetan jarriko da, haren jarraibideak betetzeko. **Ikastetxeko langileek uneoro zaindu beharko dute identitatearen eta susmagarriak edo baieztatuak diren kasuen isilpeko tratamendua.**
- Eragindako pertsona kasu susmagarritzat joko da, eta etxean isolatuta egon beharko du proba diagnostikoen emaitzak izan arte. Osasun sailaren ondorengo link-ean adierazitakoaren arabera:
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/vigilancia_protocolos/eu_def/adjuntos/Protocolo-Coronavirus-SARS-CoV-2-eu.pdf
- Kasuaren emaitza diagnostikoa lortu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik adieraziko, eta irakaskuntza jarduerak normaltasunez jarraituko du. Kasua berresten bada, kontaktuen azterketa egingo da hezkuntza-ingurunean eta hezkuntza-ingurunetik kanpo, kontaktuak ezarrita dagoenaren arabera identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez.

- Kasua baieztatuz gero ikastetxeko arduraduna erreferentziako Erakunde Sanitario Integratuarekin (ESI) harremanetan jarriko da eta Osasun Publikoko Zuzendaritzaordetzako erreferentearekin jarraipena koordinatua egingo du beraiek ezarritakoaren arabera.

3. IRAKAS-IKASKUNTZA PROGRAMAK ETA CURRICULUMA. AGERTOKIAK.

- Klaseak hasi aurretik, irakasleek iazko memorieta oinarritu beharko dute aurtengo programazioak egiteko.
- Ikasgela bakoitzeko irakasle-taldeek koordinazio bilerak egingo dituzte, honako helburu hauekin:
 1. Ikasleen informazioa partekatu eta taldeko eta banakako ikasketa prozesuan lorpen eta beharren balorazioa egitea
 2. Ordenagailuekin arazoak edota ordenagailuen beharra duten ikasleen erregistro bat betetzea.
 3. Lehen bi astetan, bizi izandako egoera ikuspegi afektibo-emozionaletik baloratzea, batez ere, konfinamendu garaian nola egon diren aztertze.

Hiru eszenatoki aurre ikusten dira aurretik aipatu dugun bezala 2020-21 ikasturte honetan:

1. Lehenengo agertokia: aurrez-aurreko irakaskuntza aurre ikusten da. Aurreko puntuetan agertzen diren neurriak kontuan hartu beharko dira.
2. Bigarren agertokia: ikastalde bakoitza 2 azpitaldetan banatuko da. Azpitalde bat aste oso batean (hau da astelehenetik-ostiralera) etorriko da eta besteak, bitartean, etxetik lan egingo du.
3. Hirugarren agertokia: irakaskuntza telematikoarekin lan egingo dugu. (Ikus 3.agertokia_itxialdi egoeran jarraitu beharreko prozedura dokumentua irakasleentzat).

https://www.antigua-luberri.net/wp-content/uploads/2021/02/3.-agertokia_-itxialdi-egoeran-jarraitu-beharreko-prozedurak.pdf

Ikasgai bakoitzean ze metodologia erabiliko den, ikasgai bakoitzeko erabakiko da mintegietan, betiko moduan, baina gutxieneko ezinbesteko batzuk finkatuta geratzen dira:

IRAKASLE GUZTIEK IKASLE GUZTIEKIN, **SARRERA-PLATAFORMA BERA** ERABILIKO DUTE: Plataforma horretan gela bakoitzeko ikasgaien eta egin beharren planifikazioa agertuko da astero.

3.1 HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEI ARRETA

Lehenengo agertokitik bigarren agertokira aldaketa emango balitz, ikasle hauen presentzialtasuna lehenetsiko da, betiere osasun-agintarien jarraibideen arabera, eta familiei jakinarazi beharko zaie, edozein agertokitan ikastetxera joateko baldintzak zeintzuk diren (ordutegiak, zerbitzuak, higiene-neurriak, etab). Bertako irakasleek protokolo berezi bat idatziko dute eta horren berri emango zaizue.

3.2 EUSKARA INDARTZEA

Ikastetxeko Urteko Planaren helburu bat EUSKARA indartzea izango da. HNBtik (Hizkuntza Normalkuntza Batzordea) eta Zuzendaritzatik ekintzen programa berezia bultzatuko da euskara indartzeko.

4. IRAKASLEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

- Itxialdi garaian garatu genituen jarduerak modu kritikoan aztertu eta zuzentzen eta hobetzen saiatuko gara. Praktika onak identifikatu eta hobetzeko arloak antzemango ditugu.
- Irakasle bakoitzak ikasleekin garatu dituen estrategiak eta tresnak beste irakasleen artean elkar banatzen jarraituko dugu.
- Irakasleen gaitasun teknologikoaren diagnostia egin, beharrak aztertu eta prestakuntza egin, irailan ikastetxeko informatikako irakasle eta premia arduradunak bultzatuta baita berritzeguneak bultzatutako ikastaroak egitera animatuz.

5. LAGUNTZA-ETA JARRAIPEN BATZORDEA

JARRAIPEN BATZORDEA	
Zuzendaria	Idoia Azanza
Lan arriskuen arduraduna	Andoni Markiegi
Berritzeguneko Erreferentea	Tere Santos
Hezkuntza-ikuskaria	Joxean Fernández
OOGko kidea	Kristobal Gogorza
Covid-19ko arduraduna	Gontzal Ávila